



LEHIAKETAREN OINARRIAK

0 LEHIAKETAREN DESKRIBAPENA

«Rockein!» Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako musika-proiektuak bultzatzea bilatzen duen lehiaketa da, talde eta bakarlariei zuzendua, eta honako sari hauek banatzen ditu: batetik, -musikaren alorreko- jarduneko profesionalekin material berria grabatzea, produzitzea eta masterizatzea, eta, bestetik, MAZ Basauri jaialdian jotzea.

«Rockein!» lehiaketaren antolatzaileek **2026ko maiatzaren 22ko 12:00etatik 2026ko uztailaren 2ko 20:00ak** arte onartuko dituzte izen-emateak.

Epaimahaiak sei talde finalista hautatuko ditu, Basauriko Social Antzokian zuzenean jotzeko **2026ko azaroaren 14an (larunbata)**.

Musika-proiektu horietako hirutan, Bizkaiko Hego Uribe eskualdeko kide bat egon beharko da gutxienez, eta taldeetako batean, Basauriko kide bat, gutxienez.

Zuzeneko saioen ondoren, Epaimahaiak lehiaketaren irabazleak izendatuko ditu.

«Rockein!» Basauriko Udalak antolatzen du (hemendik aurrera, «antolatzaileak»), eta Bizkaiko Foru Aldundia ekimenaren babeslea da.

1 SARIAK

Honako hauek dira «Rockein!» lehiaketako sariak:

TALDE IRABAZLEA

- EP profesional bat grabatu, ekoiztu eta masterizatzea Bilboko El Tigre estudioan
- Bideoklip profesional bat grabatu eta ekoiztea
- MAZ Basauri jaialdian parte hartzea

TOKIKO TALDE ONENA

- Bideoklip profesional bat grabatu eta ekoiztea
- MAZ Basauri jaialdian parte hartzea

BIZKAIKO TALDE ONENA

- EP profesional bat grabatu, ekoiztu eta masterizatzea Bilboko El Tigre estudioan
- MAZ Basauri jaialdian parte hartzea

EUSKARAZKO TALDERIK ONENA

- MAZ Basauri jaialdian parte hartzea

ESKARABILERA SARIA

- MAZ Basauri jaialdian parte hartzea

Epaimahaiak edozein sari eman barik utzi ahalko du.

Sariak ezin dira metatu, eta, beraz, talde bakoitzak sari bakarra irabazi ahalko du.

Talde sarituek konpromisoa hartzen dute antolatzaileek finkaturiko epeak eta gestiorako baldintzak betetzeko, material berria prestatzeko prozesuan.

2 BALDINTZAK

Lehiaketan izena eman ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte taldeek:

- **Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan** jaioa den edo egoitza bertan duen kide bat izatea, gutxienez.
- Kideak **16 urtetik gorakoak** izatea.
- Izena emateko unean, **ez edukitzea editatuta disko bat baino gehiago (LPA), kontratu diskografiko baten menpe egon zein ez.**
- **Abestiak jatorrizkoak** izatea. Antolatzaileek eskatuz gero, horien egile dela frogatu beharko du taldeak.
- Musika-estilo guztiak onartzen dira.
- «Eskarabilera» sailean aurkeztu ahal izateko, taldekideen erdiek, gutxienez, emakumezkoak izan beharko dute.
- **Aurreko urteetako talde sarituek ere parte hartzeko aukera** izango dute, baina ez dute saria errepikatzeko aukerarik izango.

Antolatzaileek, lehiaketako edozein fasetan, **taldeak kanporatu ahalko dituzte, lehiaketako oinarriak betetzen ez badituzte.**

3 IZEN-EMATEAK

Izena emateko, **inskripzio-orria** bete beharko dute taldeek (hemen dago: basauri.eus, zirtart.basauri.eus eta facebook/rockein), eta, **2026ko maiatzaren 22ko 12:00etatik uztailaren 2ko 20:00ak** bitartean, honako helbide elektronikoa bidali: rockeinlehiaketa@gmail.com. Horrekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu beharko dituzte:

- **3 abesti**, mp3 formatuan
- **Taldearen argazki bat**, jpg formatuan
- **Taldearen deskribapena eta historia**, doc, docx edo pdf formatuan
- **Taldekideen errolda-agiriaren edo NANaren fotokopia**, EAEko edo Nafarroako jatorria egiaztatzeko

«**TOKIKO TALDE ONENA**» sailean aurkeztu ahal izateko, taldekide batek, gutxienez, erroldatuta egon beharko du honako udalerrietako batean: Basauri, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Usansolo edo Zaratamo. Beharrezkoa izango da jatorria frogatzea, NANaren edo errolda egiaztagiaren fotokopia, izena emateko eskuorriarekin batera aurkeztuta.

«**BIZKAIKO TALDE ONENA**» sailean aurkeztu ahal izateko, taldekide batek, gutxienez, erroldatuta egon beharko du Bizkaiko udalerrietako batean. Beharrezkoa izango da jatorria frogatzea, NANaren edo errolda egiaztagiaren fotokopia, izena emateko eskuorriarekin batera aurkeztuta.

Izena emateko orria eta goian adierazitako dokumentuak eskuz entregatu ahal izango dira, edo, bestela, postaz bidali, Zirt Zarten bulegora (harrera-ordutegia: 10:00-19:00, -astelehenetik ostegunera, eta, ostiraletan, 09:00-17:00), helbide honetara: Autonomia kalea 3, 48970 Basauri (Bizkaia).

Eskatutako datu **pertsonalak datu pertsonalen babeserako lege-arauegian ezarritakoaren arabera erabiliko dira**: fitxategi batean sartuko dira, eta fitxategi horren helburu bakarra izango da taldeei lehiaketaren gaineko informazioa ematea. **Taldeek datu pertsonaletara sartzeko, horiek zuzendu edo, baliogabetzeko eta horien aurka egiteko eskubidea izango dute**, antolatzaileei idatziz eskatuta.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira edukiaren, hizkeraren edo mezuaren bitartez (hots, abestien letren edota taldeak/bakarlariak proiektaturiko irudiaren/eszenaren) sexu-diskriminazioa bultzatzen duten, edo iraingarriak izan daitezkeen, sentsibilitateari min eman diezaioketen edo hirugarrenen eskubideak bortxa ditzaketen proposamenak.

Antolatzaileek izen-emateak birkalifikatzeko eskubidea izango dute, hala egitea egoki ikusten badute.

4 LEHIAKETAREN EPAIMAHAI

Epaimahaiakideak **musika-alorreko** profesionalak eta lehiaketaren **antolatzaileen** ordezkariak izango dira.

5 TALDEAK HAUTATZEA, AMAIERAKO KONTZERTUA ETA EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Izena eman duten banda guztien artean, **Epaimahaiak sei talde finalista hautatuko ditu, Basauriko Social Antzokian zuzenean jotzeko 2026ko azaroaren 14an (larunbata)**. Musika-talde horietako hirutan, Bizkaiko Hego Uribe eskualdeko kide bat egon beharko da gutxienez, eta taldeetako batean, Basauriko kide bat, gutxienez.

Talde horietako hiruk finalean joko dute, Hego Uribeko Artista Onenaren kategoriaren barruan; eta, beste hiru talde finalistek, berriz, kategoria nagusiko Artista Onenaren saria lortzeko lehiatuko dira. Horrek ez du eragotziko sei finalistok lehiaketako bost kategorietara ere aurkeztea, baldin eta baldintzak betetzen badituzte eta aintzat hartuta, betiere, ezin direla sariak metatu.

Amaieran joko diren abestiek parte-hartzaileen jatorrizko kantak izan beharko dute: ez da onartuko beste artista batzuen bertsio oso edo partzialik. Proiektu finalista batek arau hori betetzen ez badu, Epaimahaiak lehiaketatik kanporatu ahalko du.

Epaimahaiak abestien kalitatea eta potentziala, kanten zuzeneko exekuzioa, banda edo bakarlari bakoitzaren jarrera, eta proiektuek etorkizun hurbilean izan dezaketen proiektzioa baloratuko ditu, besteak beste.

Era berean, proposamen finalistak hautatzeko fasean nahiz finalaren beraren ondoren, irabazleak aukeratzeko orduan, Epaimahaiak lehenetsuna emango die musika-eszenan ibilbide laburrena izan duten eta «Rockein!» sarien laguntza gehien behar duten proiektuei, lehiaketaren oinarriak bete arren dagoeneko ibilbide luzea eta ezaguna duten, eta, beraz, dagoeneko egonkortuta dauden beste proiektu batzuen aurretik.

Azken ekitaldiaren gauean bertan erabaki eta jakinaraziko ditu Epaimahaiak 2026ko edizioko bost kategorietako irabazleak.

Zuzeneko kontzertuan joko dutenek izena emandako pertsona berak izan beharko dute. Ezinbesteko arrazoiengatik taldekideren bat aldatuz gero, justifikatu egin beharko da, eta **antolatzaileek horretarako baimena eman beharko dute**. Edozelan ere, ordezkioak oinarri hauetan jasotako baldintzak bete beharko ditu.

6 JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK ETA BAIMENAK

Azken fasea hasi aurretik sailkatutako banda batek bere abestiak jabetza intelektuala babesteko erakunde batean erregistraturik baditu, antolatzaileei horren berri eman beharko die. Horrela, parte-hartzaile horien eskubideak babestuta geratuko dira.

Parte-hartzaileek antolatzaileei baimena ematen diote lehiaketan parte hartzean sortutako musika eta irudiak zabaltzeko, helburu komertzialik gabe.

7 ANTOLATZAILEEI BURUZ

Antolatzaileek oinarri hauek aldatu ahalko dituzte lehiaketa hobeto garatzeko.

Antolatzaileak ez dira parte-hartzaileek bidalitako gaien erantzule izango, baldin eta gai horiek hirugarrenen egile-eskubideak bortxatzen badituzte. Gainera, erreklamaziorik egonez gero, parte-hartzaileak izango dira erantzule bakarrak.

8 OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak oinarriok oso-osorik onatzea dakar.

ARGIBIDE GEHIAGO:

Basauriko Udala - Zirt Zart Gazte Bulegoa

-Tel: 944 666 430 / 634 984 615

-e-posta: rockeinlehiaketa@gmail.com

-Webgunea: www.basauri.eus / zirtzart.basauri.eus

-Sare sozialak:

-Facebook: facebook.com/rockein

-Twitter: [#rockein @rockeinrock](https://twitter.com/rockeinrock)

-Instagram: [rockein.lehiaketa](https://www.instagram.com/rockein.lehiaketa)